

# Mundu bat Errenterian I. Eusko Olerti Egunean

Mikel Guria



zuen, martxoan elkarrekin Zumarragan egin zuen batzarrean ehun bazkide doi izatetik bi milatik gora izatera pasatu berria zen eta talde eragile hori erabilita Pizkundera eragin eta Euskadi, Euskal Herria iratzarri nahi zuten. Primo de Riveraren diktadura amaitua zen, nahiz oraindik "dictablanda" izan agintean, baina sasi guztien gainera askatasun egarria eta euskal herrimina handia zen Euskal Herrian.

Mundu bat bildu zen Errenterian 1930eko ekainaren batean. Aitzolek zuzentzen zuen Euskaltzaleak elkarteak antolatu zuen lehen "Olerti Eguna" hartara. 1930eko San Tomas egunean, Donostiako Parte Zaharreko ostatu batean izen entzutetsuak bildu ziren mahaiaren inguruan. Bertan ziren, besteak beste, Nikolas Ormaetxea *Orix*e eta Jose Maria Agirre *Xabier Lizardi* olerkariak, Antonio Maria Labaien antzerkigilea eta Cabanas-Erauskin eta Olasagasti margolariak. Denen buru, Joseba Ariztimuño, *Aitzol*, idazle eta apaiz tolosarra. Bi erabaki nagusi hartu ziren. Lehena, denen indarrak Euskaltzaleak taldean bilduta, olerkigintza bultzatzea. Eta bigarrena, *Biozkadak* eta haren egilea aitzakiatzat hartuta, lehen euskal Olerti-Eguna antolatzea. Ezen kasualitatea izan gure herria aukeratu izana euskarazko sorkuntza biziberritu nahi zuen Olerti Egunerako. Koldobika Jauregi, Jautarkol omentzea izan zen aitzakia. Urtebete lehenago Jautarkolek "Biozkadak" olerti liburua argitaratu zuen, eta Euskaltzaleak omenaldi moduan eta poesia suspertzeko lehen pausu gisa antolatu zuen gurean lehen Olerti Eguna izan zen hura.

Aitzolek Lizardiren eskutik, 1930an Euskaltzaleak elkarrekin zuzendaritza hartu berria

Eta literaturan berpizte hori nabarmena da, poesian Jautarkolen aipatutako "Biozkadak" eta Emeterio Arreseren "Txindor" eman dira argitara. Kontagintzan Gregorio Mujikaren "Pernando Amezketarra", garaiko benetako best-sellerra izango dena, 1927an argitaratu da eta Pablo Zamarriparen "Zaparradak" urte bete lehenago. Itzulpenengintzak ere aurrerapauso nabarmena eman du, orduantxe Orixek "Tormes'ko Itsu-mutilla" itzuli du, Aingeru Irigaraik "Kixotearen atal bat", Larrekoetxeak Grimm anaien berrogeita hamar ipuin ekarri ditu euskarara, Altunak Oscar Wilde...

Olerti Egunean milaka lagun eta momentuko idazlerik entzutetsuenak eta ez hain entzunak gure herrian bildu ziren, gure kaleetatik izan ziren Lizardi, Loidi, Tapia-Perurena, Orix, Lauaxeta... Mezak olerki irakurketei, bertsolariari, antzerkiari, dantzei eta euskararen aldeko mitinei eman zien bidea. Herriko plaza gainezka zen, horrela erakusten dute egun hartako argazkiak. Olerti eguna herritarren festa eguna nahi zen, helburua estetikatik aruntzagokoa baitzen eta elitetatik herriarengana hedatu nahi zena, gainera. Pizkundera zen helburua, herria eta gizartea iratzartzea, nazioa eraikitzea eta poesia horren oinarrian jarri zen.



Joseba Ariztimuño, Aitzol, dugu mugimendu horren eragile, akuilu eta xaxatzailea. Apaiz tolosarrak Eusko Pizkundearen buru gisa euskal kultura sustatu zuen, literatura alorrean, antzerkian, bertsolaritza, lehen ikastolak sortuz eta helduen alfabetatzea bultzatuz. Oso alor ugari eta sakonean jorratu zituen ekintzabideetan Aitzolek: antzerkia, poesia, umeentzako euskara, euskal eskola eta euskara beraren garapena. Aitzolentzat euskara ez zen bakarrik teoria, herria garatzeko ekintza praktikoa baizik. Olerti egunak bultzatu zituen, Errenteriakoarekin hasita 1936ko ekainaren 28an Lekeition Resurreccion Maria Azkueren omenez antolatu zen VII. Eguneraino eta lehen bertsolari

txapelketak, 1935an eta 1936an gauzatu zirenak. 1933an *Yakintza*, kultura aldizkaria sortu zuen. Poeta eta idazleen bultzatzailea izan zen, horrenbestera Errepublikara garaiko euskal poeta nagusiei Aitzolen belaunaldia deitu izan zaiola.

Aitzolek euskal poesia bultzatze horretan estetikatik harantzago Pizkunde helburuak ditu. Herder-en teoria erromantikoekiko zordun, Europa berriaren sortu diren estatu gazteetan du begia. Nazioa komunitate kulturala delako definitiotik abiatuz, poesia da XIX. mendetik Europan sortzen ari diren estatu berriak eta haien herri-hizkuntzak suspertzeko ardura izan duena. Aitzolek hor zuen Anton Abadia eta haren



lore-jokoen esperientzia. Literatura herrien askatasunerako bidea. Aitzolentzat, Euskal Herria bezalako herriek badute euren *volksgeist*-a, euren arima propioa. Horrela bere zabalpen lanetan Aitzolek askatasuna lortu duten herriak eta olerkari nazionalen arteko uztardura erakutsi die bere garaiko euskaldunei: Eslovakia eta Kollar, Polonia eta Mickiewicz, Norvegia eta Aasen, baina batez ere Finlandia eta Lönnrot. Ordura arte ezagutu gabeko publizitatea egin zuen Aitzolek Donostiako *El Día* egunkarian euskal irakurleak herri horien berri izan zezan. Poesiari dagokio herriaren arima era estetiko batean azaltzea, helburua euskal sena esna araztea.

Errenteriako I. Eusko Olerti Eguna hura guztiz arrakastatsua izan zen, Olerki-lehiaketan Estepan Urkiaga *Lauaxeta* gertatu zen irabazle, «Maitale kutuna» olerkiari esker. Nikolas Ormaetxea *Orix*e izan zen bigarren. Errenteriako saria izan zen Estepan Urkiaga *Lauaxeta* poeta gisa eza-gutzera eman zuen lehen urratsa.

Olerti Egunak Errenterian izandako arrakastaren lekukoa, hurrengo bi orrialdeetan duzue. Hemen azaltzen dugun orrialde bikia 1930eko Renteria aldizkarian argitaratu zen, eguna ospatu eta hilabete t'erdira, bertan azaltzen dira Olerti Eguneko argazki nagusiak, horien artean batzuk ahaztuak genituenak. Horien artean, lehen Olerti Egunean partaide izan ziren gazteena.